

Urriko "Larunbat Musikalak" zikloak aukera emango du Asaba Bikoteaz gozatzeko

Marina Manterola flautan eta Carolina Agudín gitarra "Oinatzak" aurkeztuko dute 12:30ean Arte Ederren Museoa

Nola aretoa bete egin den azken emanaldietan, beharrezkoa izango da gonbidapena izatea kontzertu honetatik aurrera, zeinak eskuragarri baitaude museoan bertan

Gasteiz, 2024ko urriaren 1a. Datorren larunbatean, urriak 5, 12:30ean, Arabako Arte Ederren Museoa, Asaba Bikotearen "Oinatzak" eskainiko du Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzuak antolatzen duen "Larunbat Musikalak" izeneko programak.

Marina Manterola Najera (flauta) eta Carolina Agudín (gitarra) "Oinatzak" proiektuarekin datoz. Etengabeko aldaketan dagoen mundu honetan, ezinbestekoa da gure historia eta sustraiak markatu dituzten melodiak gogoratzea eta ospatzea. Musika klasikoa eta folklorikoa batzen dituen kontzertua da, denboran zehar iraun duten melodiak biziarazten dituen. Antzinakoaren eta garaikidearen arteko elkarrizketa, hurbilekoaren eta urrunekoaren artekoa. "Oinatzak" ez da soilik ondare kulturalaren ospakizuna; sustraiekin bat egiteko musikaren gaitasunari egindako omenaldia ere bada; norberaren jatorriarekiko loturaren eta pertenezia zentzuaren hausnarketaren ondorio, azken finean.

Larunbat Musikalak formatu txikiko kontzertu eta ekitaldien zikloa da, antzinako musika, musika klasikoa, garaikidea, zarzuela nahiz beste kultura batzuetako musika erreperitorioak eskaintzen dituena. Haren ezaugarria askotarikoa izatea da eta talentu gazteak bultzatu nahi ditu entzule berriak erakartzeko.

Edizio honetan, gainera, Kultura eta Kirol Sailak duela 20 urte baino gehiagotik antolatzen dituen beka artistikoen laguntza jaso duten hainbat pertsonak hartuko dute parte, baita beste erakunde batzuen beka jaso dituzten artistek ere. Kasu honetan, Marina Manterolak, zeinak beka jaso baitzuen 2023an.

Nola aretoa bete egin den azken kontzertuetan, beharrezkoa izango da gonbidapena izatea kontzertu honetatik aurrera, haietaz gozatzeko. Gonbidapenak ekitaldi bakoitza baino 10 egun lehenago egongo dira eskuragarri Arabako Arte Ederren Museoa bertan.

Argibide gehiago: <https://kulturaraba.eus/eu/-/conciertos-de-sabados-musicales>.

GAINERAKO PROGRAMAZIOA

Tokia	Data	Programa/Artista
Gasteiz Arte Ederren Museoa	Azaroaren 9a 12:30ean	Duo Cubas Hondal (<i>Kantabria</i>) Marta, eskusoinua + Cristina, biolina
Gasteiz Arte Ederren Museoa	Abenduaren 14a 12:30ean	Dúo Arriaga (<i>Bizkaia</i>) Ander Marzana, pianoa + Unai Sánchez Abad, biolontxeloia (Anderrek Bizkaiko Foru Aldundiaren beka jaso du aurten)